ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2025eko ekainaren 6a, ostirala • 63 zk.

**II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA**

## AGURAINGO UDALA

**Alkatearen eskumen diren kontratuetarako kontratazio mahai iraunkorraren osaera aldatzea**

Alkateak, 2025eko maiatzaren 29an emandako 67/2025 Dekretuaren bidez, hau ebatzi du:

Alkateak, 2022ko uztailaren 11ko ebazpen baten bidez, alkatearen eskumen diren kontratuetarako kontratazio mahai iraunkorraren osaera aldatzea ebatzi zuen.

Kontratazio mahaiko kide batzuk zerbitzuak hobeto emateko, belaunaldi erreleboa egiteko eta Udalaren zerbitzura dauden langileen ezagutza transferitzeko giza baliabideak antolatzeko planari atxiki zaizkio. Hori dela eta, beharrezkoa da kide berriak izendatzea.

Kontuan hartu da zer xedatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23IUE eta 2014/241UE zuzentarauak bertako ordenamendu juridikora dakartzan Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak bigarren xedapen gehigarriaren 7. apartatuan eta 326. artikuluan toki erakundeetako kontratazio mahaien eraketari dagokionez.

Kontuan hartu da administrazio publikoetako kontratazio organoek kontratazio mahai baten laguntza izan behar dutela.

* Aho batez hau erabaki da:

Lehenengoa. Eratzea Aguraingo alkatearen eskumen diren kontratuetarako kontratazio mahai iraunkorra, egun indarrean dagoena ordezkatuko duena eta honako hauek osatuko dutena:

Lehendakaria: Kepa Iriondo Illarramendi, kontratazioko teknikaria.

Ordezkoa: Marta Ramírez, Arabako Lautadako Kuadrillako legelari aholkularia.

Bokalak: María Francisca Irigoien Ostiza, Aguraingo Udaleko idazkari-kontuhartzailea; Marta Ramírez, Arabako Lautadako Kuadrillako legelari aholkularia, eta Estibalitz Iturrospe López de Heredia, administraria.

Idazkaria: Estibaliz Cid Ajuria, administraria.

Ordezkoa: Estibalitz Iturrospe López de Heredia, administraria.

Bigarrena. Izendapena interesdunei jakinaraztea, eta ALHAOn eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Agurain, 2025eko maiatzaren 29a

*Alkatea*
*RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2025.06.06 05:22:03 Z